

hondo-hondotik

Gloria Rekarte, Oskar Bizkai, Imanol Haranburu

(Preso ohiak)

Kartzelan usteldu

Duela zenbait hilabete Iruñean egindako polizia operazio baten ostean, Nafarroako gobernuburu Miguel Sanzek bere poza agertu zuen hedabideen aurrean, «haiek kartzelan usteltzen ikusteak pozten gaitu beti askatasuna defendatu izan dugunak» aldarrikatuz.

Bere pozarekin argi eta garbi erakutsi zuen Sanz jaunak presondegi-politikak, hasi eta buka, kartzelan ustelaraztea duela xede bakar. Presondegi legeak aldarrikatzen duenarekin erabateko kontraesan dago, aintzakotzat ez hartzea hobesten duen orori oroitarazi behar zaion bezala. Berdintasunerako eskubidea legearen aurrean, tratatu txarrik ez jasateko eskubidea, osasunerako eta segurtasunerako eskubidea... Zigor Kodea, Presondegi-tako Lege Organiko Orokorra, Presondegi-tako Araudia eta, nola ez, Espainiar Konstituzioaren bidez hain ongi zainduak diruditen eskubide horiek guztiak zakurraren putza dira hiritar xumea ez baina Nafarroako gobernuburu izanik *betidanik* defendatu izan duen askatasuna, antza, euren legeak ere hankapean hartuz bermatzen dela uste duenarentzat.

Eta ikuspegi honetatik so egin behar zaio Bautista Barandallaren egoerari. Etxarri-Aranatzen jaio eta kartzelan 1990etik dagoen preso nafarrari duela bi urte diagnostikatu zioten kolitis ultzerosoa. Ez da deus berezia, milaka lagunek izaten duen gaixotasuna da, ez oso larria, baina bai mediku espezialista baten aholkuak, kontrola eta aldizkako azterketak eskatzen dituena. Baina preso bat da Bautista, euskal preso gainera, euskal preso politikoa. Horregatik, bere gaixotasuna beste hainbaten modukoa izan ordez, Sanz jaunak trabarik gabe adierazi zuen «kartzelan usteltze» hori bide laburren erdietsi ahal izateko presondegi-politikaren baliabide bilakatu zen. Horregatik ez zuen izan ez kontsultarik, ez kontrolrik, ez azterketarik, ez behar zuen medikuen jarraipenik ere. Bi urte geroago horregatik larriagotu zen hain nabarmen haren gaixotasuna eta nagusitu ziren oinazeak, etengabeko beherako eta odoljarioak. Hilabeteak eman zituen beti ukatu zioten medikuen kontsulta baten eske. Kurioski, kartzelako medikuak hartzeko agindu zion botika bakarra gaixotasunari aurre egiteko kontraindikatu dago. Azkenean, martxoan, egoera larrian ospitaleratu behar izan zuten. Zaragozako Miguel Servet



Bautista Barandalla aska dezatela eskatzeko egindako mobilizazioetako bat.

ospitalako medikuen txostenaren arabera, zortzi hilabete lehenago hasi zen eboluzio-prozesua. Denbora tarte luzeegia ezin tratamenduk, bortitzenak ere, eraginik izan zezan, eta heste lodia osorik erauzi behar izan zioten.

Bautistaren egoera latza izan arren, ankerkeriaren makineria martxan jarri besterik ez zen egin. Behar dituen baldintza higieniko eta dietetikoak inondik inora ez dira betetzen, eguneko 24 orduak tentsioak eta gutxienezkoen azpiko bizi-baldintzak baldintzatuta daude eta, batez ere, egun duen egoera gaitzera eraman zuen mediku taldearen esku egon behar zuen kartzelan. Zortzi aldiz ospitaleratu behar izan dute egoera larrian ordutik, 25 kilo galtzera iritsi da eta, bere kideen berotasunagatik eta beregandik hurbil egon ahal izateko hilabete-tan zehar euren lanak Zaragozarako joan-etorri etengabeekin uztartu behar izan zituzten senideen sendotasunagatik, ez du izan narriadura handiagoa.

Presondegi legeek preso orok zigorra bere bizilekutik hurbilen dagoen kartzelan betetzeko duen eskubidea zehazten du. Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak baldintzapeko askatasunean kale-ratzeko eskubidea ere bai (Zigor Kodeko 92. artikulua eta Presondegi-tako Araudiko 196. artikulua). Baina presondegi legea eta begiesten dituen eskubideak hutsaren hurrengoak dira gura duen lege ororen aurrean entzungor egin eta bazter utzi nahi dituenak nahi bezala baztertzen dituen sistema batentzat. Apirilean eskatu zuen Bautistak Iruñeko kartzelara ekar zezaten eta

92. artikulua eman ziezaioten. Zaragozako kartzelako Tratamendu Batzordeak leku aldatzea onartzeko erabakia aho batez hartu zuen arren, Presodengi Erakunde-tako Zuzendaritza Nagusiak bertan behera utzi zuen eskaria eta Kartzelazaintza Epaitegi-ko fiskalak behin eta berriro atzeratu zuen bere txostena epailearen ebazpena eragotzi eta abokatuak egin zitzaizkion izapideak oztopatzeko asmoz.

Bost hilabete baino gehiago behar izan dira Bautista Iruñeko kartzelara ekar zezaten. Iritsi berria zela, berriro ospitaleratu behar izan zuten egoera larrian; geroztik beste bitan eraman behar izan dute Nafarroako Ospitalera. Bere senitartekoei Etxarri-Aranatz eta Zaragoza arteko joan-etorri etengabea saihestu ahal izan dute, baina ez tamainako ordaina jasan gabe: horretarako eskuduntza duen Iruñeko kartzelako zuzendaritzak ospitalean zegoen bitarteko bisitei buruz erabaki zuena hankapean hartuz, presondegi-legean aitortutako gutxienezko baldintzetara ere iristen ez zirenak ezartzen saiatu zen polizia: astean hoge minutuko bisita bakarra, eta bi seniderekin bakarrik. Bautistak ez zuen ez gaixo bati ez preso bati dagokion eskubiderik izan. Ospitaleratze berri bakoitzarekin zalantza gordinean bizi dira haren senideak: ikusterik izango ote dutenetz, nola, zenbat denboraz eta zein baldintzatan. Ankerkeria —beti izan baita faxismoaren ezaugarrietako bat— eta bere makineria beti lotu izan dira doitasunez.

Kartzelan egon garenok ongi asko dakigu jokoan osasuna dagoenean *arduragabe-*

keria ez dela ez utzikeriaren ez nagikeriaren sinonimo soil. Presondegi-tako makineriaren erraiak barne-barnetik ezagutu ditugunok badakigu haien mugimendu bakar bat bera ere ez dela ausazkoa eta guztiak helburu bat eta bera dutela xede: preso suntsitu eta sakailatzea. Badakigu jakin epaitegiek emandako ebazpen guztiak gaitzen dituzten eta lege guztiak urratzen dituzten epai inplizituak dituztela euren baitan guri ezarritako zigorrak; indarrean ezarri edo euren babesa ematen dietenek haien benetako mamia aitortzeko sekula adorerik azalduko ez duten moduko epaiak, alegia. Ezen, egiazki esan behar da hau ere, babes handia dute. Informazioarekiko konpromisoa erdeinatzen duten komunikabideetan; hainbat eta hainbaten kontzientzia asalda ez dadin informazio-kartelak kentzen dituztenengan; euren erantzukizunari muzin egiteko asmoz, banatzen diren esku-paperak irakurtzeari uko egiten diotenengan; gertatzen ari dena ongi baino hobeki ezagutu baina hala izateaz poztzen direnengan; zer gertatzen den jakin eta gustukoa ez izan arren, irainduko dituzten beldurrak eraginda, euren usteak alde batera uzteko gauza direnengan ikusten dugu aipatutako babesa.

Oso da larria Bautistaren egoera. Koldo Elizetxea, Jose Antonio Gaztañaga eta Sergio Fernandez Ataurik bizi dutenaren moduan, muturreko egoera da. Haientzat eskatutako 92. artikulua lortzeko bideratze-lan geldia eta nekeza dugu aurretik. Denok dakigu jada zein den legeen benetako indar eta irizpidea espainiar estatuan; badakigu, baita ere, zertarako balio duten lege horietan aitortutako balizko eskubideak. Baina ezagutzen dugu euskal gizartearen mobilizazio ahalmena ere; eskubideen urraketa sistematikoa, sufrimendua eragitea beste helbururik ez duten neurriak eta ankerkeriaren aurka erakusten duen zorroztasuna ere. Orain erakustea hain beharrezkoa den ahalmen horrek bakarrik lortuko du, dago-kion eskubidea garatuz, Bautista etxeratzea. Deitutako mobilizazioetan parte hartzea da bere eskubidea dela oroitarazi eta eskatzeko modurik eragingarriena. Guz-tion erantzukizuna da. Ez iezaiozu bizkar eman.

Artikulu hau ondokoek ere sinatu dute: Mario Zapata, Enrike Varona, Rikardo Garziandia, Joserra Artola, Fermin Anzizar, Esther Lakasta, Karlos Zekurra eta Alfonso Arnesto.

esaldiak

«Oteiza euskal kultura garaikidearen ikur nagusia da, haren fundazioak Nafarroan du egoitza eta hori ezin du onartu UPNko gobernuak»

XABIER MORRAS

(Pintorea eta Oteiza Fundazioko kidea)

«Ez dugu egingo 77an bezala; hauteskundeak baldin badaude eta militanteek hala erabakitzen badute, aurkeztuko gara»

IÑAKI ALDEKOA

(Aralarreko kidea)

«Merkatuak ahalmen mugatua du eta merkatu horri ezin zaizkio eman berak irents ditzakeen baino gehiago»

JORGE JIMENEZ

(Euskal Editore Elkarte-k lehendakaria)

«Selekzioaren gatazka ez dator kirolek; beste arlo bateko arazoa da. Beste zelai batean jokatu behar da partida eta irabazi»

ANDONI ZUBIZARRETA

(Athleticeko kirol zuzendaria)